

Behin-behineko langileentzat egonkortasuna, iruzurrik ez!!

2018ko LEPa: LAB, STEILAS, CCOO eta ELA sindikatuen komunikatua ~ 3 Campusetan konzentratzera deitzen dugu

Urriaren 11n egin genuen UPV/EHUKo sindikatu eta Administrazioaren arteko lehen bilera 2018ko Lan Eskaintza Publikoaz (LEP) jarduteko.

Bilera horretan lau sindikatuok adierazi genuen ez genuela onartzen UPV/EHUKo Gerentziak bidalitako 2018ko deialdi berrian 38 lanpostu ateratzea, 2016ko eta 2017ko deialdiek edukiko dituzten bermeak eduki barik. **Egonkortasun Akordio berria** aldarrikatu genuen edo, egon ezean, lanpostua lortuko ez luketen langile bakanen **birkokatzea**. Eta Administrazioak ez bazuen ez bata ez bestea onartzen, **2018ko deialdia atzeratzea 2019/2020 urteetara**.

Hori heleraziko ziotela Administrazioaren ordezkariak Gerenteari hitz emanda, bigarren bilerarako (2018/10/18) erantzunaren berri emango zelakoan geunden. Guztion harridura eta haserrea ezin handiagoak izan ziren halakorik ez zutela ekarri ikustean, aurrekora ekarritako proposamen berbera baizik, aldaketa bakarra 2018ko deialdian irtengo ziren lanpostuena izanik.

Bakoitzak erabilitako kalifikatiboen eta hartutako erabakien gainetik, lau sindikatuok bat gatoz honako puntu hauetan:

- 1.- **2016ko ekainean** sinatutako **akordioa eta Gobernu Kontseiluak berretsitako 2016 eta 2017ko deialdiak oso onuragarriak dira** langileentzat eta **birkokapenak bermatzen dituzte soilik egonkorrek betetako lanpostuak deitzen direlako**.
- 2.- Administrazioak erakutsitako **arduragabekeria eta norabide falta nabarmena** da, orain **Gobernu Kontseiluak berretsitako akordioaren alde bakarreko aldaketa** proposatuz.
- 3.- Ez da egia 2018ko deialdia 2016 eta 2017ko deialdiekin batera egin behar denik, Administrazioak berak bere proposamenean jasotzen duen bezalaxe. **Badaude bestelako aukerak** presaka eta korrika ibili behar gabe.
- 4.- Laurok eskatu dugu, Egonkortasun Akordio berria ez dagoen edota erdiesten ez den bitartean, **lanpostu finkoa lortuko ez luketen langile apurrak birkokatzeko konpromisoa**. Ondorioz, **38 lanpostu horien proposamena kentzea edo inor lanik gabe ez geratzeko proposamen bermedunak** exigitzen ditugu.

UPV/EHUKo LAB, STEILAS, CCOO eta ELA sindikatuok onartezintzat jotzen dugu UPV/EHUKo Administrazioaren jokabidea, eta bera zuzentzera dei egiten diogu Gerentziari, eta Nekane Balluerka Errektoreari dituen eskumenak eta erantzukizunak kontuan hartuta, hauteskunde kanpainan zein berriki onartutako Plan Estrategikoan jaso bezala AZPko onartutako egonkortasuna berma dezala.  Gaiak

duen garrantzia eta larritasuna kontuan hartuta, LAB, STEILAS, CCOO eta ELA sindikatuok datorren asteko **ostegunean, urriaren 25ean, KONZENTRAZIOAK deituko ditugu hiru Campusetan:**

Bilbon: Bilboko Ingeniaritza Eskolaren aurreko Plazan, goizeko 11:00etan

Donostian: Carlos Santamaria Bibliotekaren atarian, 13:00etan

Gasteizen: Arabako Campuseko Errektoreordetzan. 13:00etan

Leioan: Errektorego Eraikinaren goiko sarreran, 13:00etan

Orain da langileon haserrea gure eskubideen defentsan erakusteko unea. Horrexegatik Konzentrazioetan UPV/EHUKo AZPko langile guztiak parte hartzera deitzen ditugu.

UPV/EHUKo langileentzat egonkortasuna! Iruzurrik EZ!